

## Nafarroa. Kultur sektorea duintzeko lantaldea

Gogoetari ekiteko proposamena

(2021-11-23)

### Hitzaurrea

2021eko martxoaren 26an, Nafarroako kultur jarduera “duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adostearren” ponentzia bat sortzeko erabakia aho batez onartu zuen Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kirol Batzordeak<sup>1</sup>. Ponentziaren helburu nagusia, azpimarratu zutenez, Nafarroako Artistaren Estatutua osatzea izango zen, sektoreko eragileak kontsultatuz horretarako. Arlo publikoko kultur ekitaldietarako kontratazio eta kudeaketarako kode bat adosteko beharra ere nabarmendu zuten, besteak beste. Ordutik, hainbat eragileren ekarpena jaso du ponentzia horrek. LANARTEAk ere berea landuko du, eta honek horretarako abiapuntu-alea izan nahi du.

---

### SARRERA

Badakigu hamaseigarren mendean bertso ederrak idatzi zituztela Bernat Etxeparek eta Juan de Amenduxek.

Badakigu nolako bertsoak idatzi zituen Abaurreako bikario nobleak.

Badakigu nolako bertsolariak sortu zaizkigun gure lurralde osoan.

Ahozko literatura aberatsa du Nafarroak gaur egun ere.

Halako zerbait gertatzen da musikan.

Badakigu zenbat estimatzen zuten Oliten eta Iruñean Allande Gilen, Urtsuako itsua, zitarra eta bihuela joz bizi zen koplakaria. Karlos Zindoa erregeak lautan hogoit hamar

---

<sup>1</sup> Bezperan, Artistaren, Sortzailearen eta Kultur Langilearen Eskal Estatutuari buruzko ponentzia bat eratzeko lege besteko proposamena eztabaidatu zuten Eusko Legebiltzarrean, baina EAJk eta PSEk aurka bozkatu zuten, eta ez zuen aurrera egin. EH Bilduren proposamenez abiarazi ziren Iruñeko zein Gasteizko eztabaida biak.

florin urre eman zion Allanderi Iruñean etxea har zezan. Ondoan nahi zuten beti errege-erreginak.

Florin gutxiago jasoz dabilta gaur Irazokitarrak, Telletxeatarrak, Petti, Azken Trena, Gutariko bat... Gaizki pagatutako loraldi horren oinarrian Iruñerria dago: Balerdi balerdi taldea eta Soñua Records, Oihuka eta Gor disketxeen lan miresgarri hura produkzioan, sustapenean eta zabalkundean.

Badakigu Nafarroan azaldu zela euskara idatzia.

Kasik sei mende geroago, maila handiko idazleak dauzkagu gure lurraldean, dela poesian dela ipuinean eta nobelan. Alor guztietan gainera: haurrentzat, gazteentzat, helduentzat.

Pamiela, Txalaparta, Igela, Denonartean... erreferentziazko editorialak ditugu euskararen eremu osoan.

### **LINGUA NAVARRORUM**

Idazleok, bertsolariok, itzultzaileok, kantariok euskara lantzen dute, *lingua navarrorum* edertuz eta aberastuz. Hala berean ipuin kontalariak, antzerkilariek, zinemagileak eta hizkuntza darabilten bestelako artistek ere. Sortzaileok, interpreteok badute ezaugarri berezi bat: euskara estandarrean egiten dute lana, baina Nafarroako euskal hizkerak baztertu gabe. Gure sortzaileon nafar euskarek berebiziko aberastasuna ematen diote euskara literario estandarrari doinuak, ahoskeran eta hizkeran. Nortasuna duen euskara da gure sortzaileen eta artisten produkzioa. Horrela lortu dute nafar hizkerak ezinbestekoak izatea gure literaturaren barruan.

Eta horretaraino iritsi badira, beren lanen kalitateagatik izan da, hala saiakeran nola poesian, ipuinean eta nobelan.

### **SORTZAILEOK, ARTISTOK EMATEN DIGUTENA**

1. Nafarroaren eta oro har gizartearen interpretazio moderno bat beren obrekin, kostunbrismotik at, topikoetatik at.

2. Entzule, ikusle eta irakurle kritikoak bihurtzen gaituzte beren lanekin. Errealitatea interpretatzeko tresnak ematen dizkigute, baita fikzioaren bitartez ere.

3. Aurkezpen, hitzaldi, errezitaldi, irakurraldi, ikastaro, *performance*, bertso saio eta beste direla medio, kultura dinamiko baten suspertzaileak ditugu. Antolatzaileekin batera, bistan da.

4. Euskarak dakarren dinamikotasun horrek garbiki frogatzen du unibertsaltasuna ez dela hizkuntzaren hedaduraz neurtzen, egiten denaren formaz eta helburuaz baizik. Hemen sortu zen, Iruñean, munduko literatura euskaratzeko lehen argitaletxea 1988an. Literatura modernoaren garapenean hain garrantzitsua izan den James Joyce-ren *Ulysses*, obra luze eta konplexu hori, Iruñean euskaratu eta publikatu zen 2015ean.

### **EUSKARAREN SUBORDINAZIOA**

Sortzaileok eta artistok, ordea, euskarari ematen zaion tratua pairatu behar dute. Hizkuntza subordinatu batean egiten dute lana. Eta horrek hainbat kalte dakarkie:

-Lan aukeretan, euskararen balioa ukatzen edo ezkututzen delako. Baita kultur lanbideetan ere.

-Kontratazioetan, ez zaielako behar bezala ordaintzen. Hitzaldi, ikastaro edo kontzertu, euskararen langile profesionala bigarren edo hirugarren mailakotzat hartzen da.

-Promozioan, hedabide publikoek euskaraz sortutako kultura ez dutelako kultura gisa hartzen.

Hau dena datu izugarri honetan laburbiltzen da: azken bi legegintzaldietan, euskal sortzaileek ez dute inolako laguntza seriorik izan. Inolako laguntzarik ez azken BI legegintzaldietan.

Eta hala ere, LABA bezalako proiektuak agertzen zaizkigu, zabalak, eraikitzaileak, Iruñea Kulturaren Hiri Buruzagia bihurtzeko bidean abiatzen dutenak euskaraz.

### **EUSKARAREN LANGILE PROFESIONALEN EGOERA**

Oro har, euskararen subordinazioak euskararen langile profesionalen prekarietatea dakar. Beheko azken mailan daude kultur sistemaren ekonomian.

## **Nafarroa. Kultur sektorea duintzeko gogoeta.** Abiatzeko proposamena

Egoera horrek euskararen aktibitate guztiak hartzen baditu ere, langile autonomo gisa diharduten sortzaileak kolpatzen ditu gogorkien. Batez ere lanean hasi berriak diren gazteak. Lazgarria da zinez, gazteak direlako, gehienetan, proposamen berritzaileak eta molde indargarriak dakartzatenak.

### **SORTZAILEOI ZOR ZAIENA**

Euskararen kultur arloko profesionalek, soldatapekoek zein autonomoek, Lanartea elkarteak sortu dute beren eskubideak defendatzeko. Uste dugu ona litzatekeela, gai honetaz sakondu nahi badugu behintzat, haren ahotsa entzutea, sektoreko gainerako eragileenarekin batera. Artean, hona hemen geure egiten ditugun elkarte horren aldarriak:

1. Epigrafe propio eta komun bat lan erregistroan euskararen langile autonomoentzat. Epigrafe horretan sartzen direnentzako lan araudi egokia, beren alorren desberdinek sortzen dituzten berezitasunak aintzat hartuz landua. Erregimen horrek ekarri behar luke langile gisa babestuago egotea, baita Gizarte Segurantzarekiko bete beharretan ere.

2. Euskararenak izan edo ez, kulturaren langile autonomoen kotizazioa fakturatutakoaren arabera izatea, lau hilabetez behin. Horrelaxe daukate Frantzia (25%) eta Portugalen (21,4%).

3. Ogasunaren irizpide garden, zuzen eta justuak jardunbideak zergatzerakoan. Puntu honek garrantzi handia dauka autonomoak ez diren sortzaileentzat ere.

4. Euskarazko kultur produkzioen eta proposamenen gutxieneko kuota bat ezartzea zirkuitu eta hedabide publikoetan.

5. Aurrekontuak emendatzea euskarak sortzen duen kultura sustatzeko.

6. Kulturaren kontzeptua sormenetik eraikitzea, ez azpiegitura edo *evento* erraldoietatik. Eta araberako politikak aplikatzea.

### **NAFARROAREN AUKERA**

Nafarroako Gobernuak aukera bikaina dauka euskararen esparru osoan eredugarri izan litekeen erreforma historiko bat egiteko.